

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3791

EBAZPENA, 2020ko irailaren 10ekoa, Kulturako sailburuordearena, Kultura eta Gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak (Bitartez deialdia) emateko Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituen eta haren osaera argitaratzen duena.

Ikusirik 2020. urtean Kultura eta Gizarte arloetako bitartekotza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko ekainaren 30eko Agindua.

Kontuan izanda, Agindu horren 11. artikulua araber, aipaturiko dirulaguntzak emateko Balorazio Batzorde batek Ebazpen proposamena egingo duela eta Batzorde horretako kideak izendatzea eta haren osaera argitaratzea Kulturako sailburuordearen Ebazpen bidez emango direla.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo andrea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Idazkaria: Rafael Elizondo Saiz jauna (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria).

Batzordekideak: Jone Uriarte Iriarte andrea, Iker Durana Fernandez de Retana jauna eta Natxo Rodriguez Arcaute jauna.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak izan dezan horren berri.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 10a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.